

*Miss Txatarra*  
Xabier Mendiguren  
Ilustratzailea: Patxi Gallego  
Elkar, Donostia, 2007

### **Alderdi basatiaren berri**

Xabier Mendiguren Elizegi idazle oparoa titulu batzuk besapean azaldu zen udazkeneko nobedadeen plazara. Horietako bat *Miss Txatarra* gaurkoan iruzkingai hartu dudan hauxe.

*Miss Txatarra* liburuak Katixa neskatxaren berri ematen digu, neskaren beraren ahotan. Idazlan laburra izanda ere, kontu asko aipatzeko lana hartzen du, zuzenean zein pertsonaien oroimenaren bitartez. Ia hasieratik, Katixa neska marjinal gisa azaltzen zaigu: txatarrerria baten gaineko solairuan bizi da, aitarekin, eta aita bisitatzeraz etortzen diren “heavy” motozaleekin, elkarrizketa gordin eta garagardoez inguraturik. Bizimodu horrekiko kontrapuntuan, larunbatero bizitza ordenatua eta zorrotz samarra daraman amonarenera joaten da, okasiorako soinekoa jantzirik. Istorio honetako hirugarren eszenatokia eskola da, eta han baditu lagun onak eta ez hain onak, ohikoa denez.

Gatazka, edo korapiloa, Katixak bere amaren berri jakin nahi duenean hasten da: nolakoa zen eta, batez ere, nola hil zen. Galdera horien aurrean, ordea, isiltasuna eta haserrea besterik ez du topatzen, harik eta, azkenean, aitaren lagun motozale haietako baten egia kontatzen dion arte: “Astillas txute txar baten akabatu zuen. Heorina adulteratua, edo gaindosia, edo ez-dakit-zer. Maitek zaldia uztea erabaki zuen orduan, eta hor kristoren laguntza eman zion zure aitak. Baina ordurako, nahiz eta jakin ez, barruan zeukan xomorroa. –Xomorroa? –Hiesa, Sida, Aids. Erabilitako xiringekin kutsatuta edo.” (64. or.).

Hortik aurrera galdera gehiago datozkio gogora Katixari: ama zer ote zen, amonak deskribatutako neska fin eta zintzoa, ala bizitzaren alderdi basatian zorte txarrez ibilitako neska bat. Aita ote den bere aita, eta beste asko.

Azkenean, bildutako informazio guztiarekin, konklusio batzuk ateratzen ditu Katixak: amak bizimodu ilunera egindako bidaia hura amonaren “agintekeria” eta “zurrunkeriaren” ondorio bat izan zela, kausa-ondorio erlazio aukeran estuegian. Hala, lotarako orduan aitarekin batera ohean dagoela, azken gogoeta hau egiten du: “Eta momentu horretantxe, asko maite dudala esan behar nionean, bera ez dela guraso estu-

zurruna eta ni ez naizela ibiliko inoiz bizitzaren alderdi basatian, hori dena esan behar nion unean bertan lo geratu naiz, lo goxoan, aitatzoren beso artean.” (70. or.).

*Miss Txatarra* liburuak era askotako tabuak (gaixotasunak, joera sexualak, heriotza, borroka armatua, gerrak...) kontagai dituen errealismo kritikoan kokatu du bere burua. Ez dakit, ordea, asmatu duen. Mendigurenek ausardiaz jokatu du gaia planteatze hutsarekin, ahalegin bat egin du, ez dago dudarik. Gauzatzeko moduari, baina, zenbait eragozpen jarriko nizkioke.

Alde batetik, egileak azkarregi jokatu duela iruditu zait, hain orrialde gutxitan hainbeste gauza proposatuta. Gaiak beste tempus bat beharko luke, nire ustez. Helburu didaktiko-moral bati begira jarritako testu baten antza hartzeko arriskua dago bestela, aita eta semearen arteko solas haietako bat bihurtzekoa. Bigarrenik, eta arestian esandakoaren haritik, neska protagonistaren jarrera dago: 10-11 urteren bueltan, hasieran gai da galdera handiak egiteko, eta azkenean gai da erantzunak zirkinik egin gabe onartzeko; helduegia iruditu zait aukeran. Azkenik, “10 urtetik aurrera” horren bidetik, ulermen arazoak eta bitartekarien errezeloak sumatzen ditut: adin horretako irakurle batek aita eta bere lagunaren hizkera eta korapiloaren muina bera nekez ulertuko duelakoan nago, eta, ulertuta ere, bitartekari kementsuak beharko dira obra ausart honi bidea egiteko.

M.L.G.